LINEAKO ARGITALPENEN LEGE GORDAILUA

ZER DA LINEAKO ARGITALPEN BAT?

ZEINTZUK IZAN DEZAKETE LGA?

EZ DUTE LGAREN ZENBAKIRIK

EDITORE/EKOIZLEEK EZ DUTE INOLAKO EKINTZA EDO EKIMENIK ABIATU BEHARRIK ZENTZU HONETAN

BILKETA AUTOMATIKOA, WEB-ARTXIBOAK ETA BESTE

JABETZA INTELEKTUALA ETA DATU PERTSONALEN BABESA

CASTELLANO

Nafarroako Gobernua

Gobierno de Navarra

ZER DA LINEAKO ARGITALPEN BAT?

Euskarri elektroniko ukiezinean hedatzen den edozein motatako informazio edo edukia da, identifikatzeko eta bereizirik tratatzeko aukera ematen duen formatu jakin batean artxibatua dagoena, eta zabalkundea ematen zaiona.



ZEINTZUK IZAN DEZAKETE LGA?

Mota orotako webguneak, liburu elektronikoak eta paperean argitaratutakoen antzeko beste material batzuk. Barnean Espainiako kulturen ondarea (bibliografikoa, entzunezkoa, ikusizkoa, ikus-entzunezkoa zein digitala) dutenak, sarrera libreko webguneak zein sarrera mugatuko webguneak izan, edozein formatu dutelarik ere.

Sarean dagoen Nafarroako ondare dokumental guztiguztia artxibatzea, gordetzea eta deskribatzea, herritarren eskura jartzeko, **osorik egin ezinezko** lana da gaur egun eskura ditugun baliabide teknologikoekin.

Interneten eskura dagoen dokumentazio guztiaren **ahalik eta lagin zabalena eta adierazgarriena lortzea** da gure helburua.

Herritar guztiok proposatu ditzakegu artxibatzeko webguneak.

Hona igor daitezke iradokizunak:

deplegalnavarra@navarra.es

EZ DUTE LGAREN ZENBAKIRIK

Beren ezaugarri bereziengatik eta bide honen bitartez hedatzen diren dokumentuen arteko muga lausoengatik eta, halaber, argitalpenak identifikatzen dituzten bestelako zenbaki normalizatu batzuk ere badirelako (ISBN, ISSN, DOI).

Lineako edukien editore/ekoizlearen betebeharra.



EDITORE/EKOIZLEEK EZ DUTE INOLAKO EKINTZA EDO EKIMENIK ABIATU BEHARRIK ZENTZU HONETAN

Betebehar bakarra dute: beren dokumentuak jasotzen uztea Lege Gordailuaren Bulegoko web-artxibatze sistema automatikoei edo lege gordailuan sartzeko eskatzen zaizkien dokumentuak transferitzea.

Argitalpenetan sartzeko erabiltzaileek harpidetu edo ordaindu behar duten kasuetan, editore/ekoizleak sarreragakoak edo sarbide seguru bat eman behar ditu edukietan sartu eta horiek deskargatu ahal izateko, betiere, ondare dokumentala zaintzeko helburuetarako soilik.

BILKETA AUTOMATIKOA, WEB-ARTXIBOAK ETA BESTE

Bilketa robota (Heritrix) arduratzen da bilketa automatikoaz, hau da, weba ekortzeaz eta artxibatze lanez. Hazi batetik (URL jakin batetik) abiatuta nabigatzen du eta, berariazko konfigurazio baten arabera, webgune batean sartuta edo estekatuta dauden artxibo guztiak gordetzen ditu (.jpg, .doc, .html, .pdf ...).

Web-artxiboak dira webguneetan egindako bilketa automatizatuarekin osatutako bildumak. Horietan biltegiratzen eta zaintzen dira une jakin batean bildu diren Interneteko baliabideak, aurrerago Internetetik desagertu ahal izan direnak.

Une honetan, **web-artxibatze tresna** hauekin ari gara lanean: CWeb, NAS (NetArchiveSuite) eta OpenWayback.

Estatu mailako proiektu honetan, Espainiako Liburutegi Nazionala da buru eta Nafarroak buru-belarri parte hartzen du.

JABETZA INTELEKTUALA ETA DATU PERTSONALEN BABESA

Prozesu guztiek (biltzea, artxibatzea, gordetzea eta kontserbatzea) zorrotz errespetatuko dute jabetza intelektualaren eta datu pertsonalen babesaren gaineko araudia.

Argitalpen horietarako sarbideak bermatuko du ez dela gertatuko jabetza intelektualeko eskubideak urratzen dituen artxiboen deskarga, kopia edo transferentziarik. Datu pertsonalak dituzten fitxategiak espresuki daude lege gordailuaren esparrutik kanpo.